

# Zein desberdintasun dago psikiatriaren eta psikologiaren artean?



# **Zein** desberdintasun dago psikiatriaren eta psikologiaren artean?





**Zer** alde dago psikiatriaren eta psikologiaren artean?

**Zer** desberdintasun dago psikiatriaren eta psikologiaren artean?

# ZEIN galdetzailea

Mota bereko zenbait gauzaren artean hautua egitea eskatzen du ZEIN galdetzaileak. Esaterako:

1. Hautua egin beharreko elementuak esplizituki ageri dira honako adibide hauetan:

[ZEIN + izena + aditza]

- Hautetatik, **zein** ardo nahi duzu, zuria ala beltza?
- Biotatik, **zein** ezpata, urrezkoa ala zilarrezkoa?
- **Zein** Antsoz ari zara, Azkarraz ala Jakitunaz?



## ZEIN galdetzailea

Baita adibide hauetan ere:

[ZEIN + da + izenondoa + superlatiboa]

- Erosi dituzun hiru liburu horien artean, **zein** izan da **garestiena**?
- Bizkarrezurra osatzen duten 34 ornoetan, **zein** da **makalena** eta erorikoen ondorioz **maizen hausten dena**?

## ZEIN galdetzailea

2. Honako galdera hauetan, berriz, elementuak inplizituki adierazita daude (edo egon daitezke), testuingurua lagun.

[ZEIN + izena + aditza]

- **Zein** euskalki hartu duzu oinarritzat hiztegirako?
- **Zein** eskualdetan bizi zara?

(Eman dezagun, aurretik Nafarroa ekarri dugula hizpidera, eta hango eskualde bati buruz galdegiten dugula.)

- **Zein** kilometrotan gertatu zen istripua?

(Eman dezagun A-8 autobidean gertatu dela badakigula.)



## ZER galdetzailea

Izen baten aurrean, haren nolakotasun edo xehetasun ezezagun bat ordezkatzeko du ZER galdetzaileak.

[ZER + izena] + aditza...?

- **Zer** gauza dira aingeruak?
- Etxean **zer** lan egiten duzu?
- **Zer** adin zuen?
- **Zer** ezaugarri ditu zure etxebizitzak?
- **Zer** pisu zenuen 25 urterekin?
- Pikorren ultraegituraren aldaketa horiek **zer** garrantzi dute?



## ZER galdetzailea

[ZER + [izena + mota]] + aditza ...?

- **Zer** kolageno **mota** da nagusi kartilago hialinoan?
- **Zer** zelula **motak** aska dezake histamina odol-hodietatik gertu?



Sarritan gertatzen da, ordea, ZEIN oker erabiltzea ZER galdetzailearen ordeztan (edota galdera egiteko bestelako moduen ordeztan). Esaterako:

- ? Posta elektronikoaren helbidea modu laburrean jartzeko gutun batean, **zein** da formula euskaraz?
- ? **Zein** da berbereen egoera Marokon?
- ? **Zein** desberdintasun dago 'efektu', 'ondorio' eta 'oihartzun' hitzen artean?
- ? **Zein** da bidea 'riesgo' eta 'peligro' hitzen artean bereizketa egiteko euskaraz?
- ? **Zein** da 'ala' eta 'edo'ren erabilera?



## Halakoak beste modu batera adieraz daitezke:

- Posta elektronikoaren helbidea modu laburrean jartzeko gutun batean, **zer** formula erabiltzen da euskaraz? / **Nola** jar daiteke euskaraz posta elektronikoaren helbidea modu laburrean?
- **Nolakoa** da berbereen egoera Marokon?
- **Zer** alde dago 'efektu', 'ondorio' eta 'oihartzun' hitzen artean?
- **Nola** bereizi daitezke euskaraz gaztelaniazko 'riesgo' eta 'peligro' hitzak?
- **Noiz** erabiltzen da 'ala' eta noiz 'edo'?